



**Mondragon  
Unibertsitatea**



**MONDRAGON  
TEAM  
ACADEMY**

# **IKASKETA PLANA ETA ARAUTEGI AKADEMIKOA**

Lidergo Ekintzailean eta Berrikuntzan Gradua  
2024-2025 (Falkon Model)

<b>1. SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>2. GRADUAREN AURKEZPENA: LEINN</b>	<b>4</b>
2.1. TALDEAN SORTZEA: Lankidetzak lehiakorrako egiten gaitu”	4
2.2. BENETAKO ENPRESAK: Zure enpresa sortuko duzu zure taldearekin	5
2.3. GOGO ETA GRIÑEZ ikasi nahi duzun horretan	5
2.4. HEZKUNTZA EREDU disruptibo eta erradikala	5
2.5. NAZIOARTEKO ESPERIENTZIA munduan sortzen, gizateriari irekiak	5
<b>3. IKASKETA PLANA</b>	<b>6</b>
3.1. Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzako Gradua, ikaste plana	7
<b>4. ARAUTEGI AKADEMIKOA</b>	<b>9</b>
4.1. IKASKETA PLAN BERRIAK	9
Moduloak eta materialak	9
4.2. KREDITUAK ONARTZEKO ETA TRANSFERITZEKO SISTEMAREN ARAU ESPARRUA	10
4.3. IRAKASKUNTZA JARDUERA ETA IKASLEEN EBALUAZIOA	13
Irakaskuntza Plangintza	13
Gorabeherak ebaluazio probetan eta lanak egitean	13
Asistentzia falta azteketetan, ebaluazio probetan eta ebaluaketetan	14
Lehenengo Ikasturtea: Matrikula lehen aldiz	14
Ondorengo matrikulak	14
Iraunkortasuna	18
4.4. BEKAK ETA DIRU LAGUNTZAK IKASTEKO	18
4.5. ESKOLA ASEGURUA ETA ERAKUNDEAREN ERANTZUN ZIBILEKO ASEGURUA	19
4.6. BEKABIDE	19

## 1. SARRERA

**Mondragon Unibertsitatea** unibertsitate kooperatiboa da, 1997an sortua eta maiatzaren 30eko 4/1997 Dekretuan ofizialki onartua. Hiru irakaskuntza-kooperatibek osatzen dute: Mondragon Goi Eskola Politeknikoa S.Coop, Enpresagintza S.Coop eta HUHEZI S.Coop. 2011n, Basque Culinary Center sortu zen, eta Mondragon Unibertsitatean sartu zen. Bere garaiarekin eta gizartearekin konprometitutako unibertsitatea da, mundura irekia eta etorkizunera proiektatua. Unibertsitate gazte eta dinamikoa da, izaera kooperatibokoa, eta sorreratik bertatik, enpresa-munduarekin duen harreman estuagatik nabarmentzen dena.

2008ko maiatzean, barne-ekintzaileen talde batek **Mondragon Team Academy** (MTA) sortu zuen Enpresagintza Fakultatean, Mondragon Unibertsitateko ekintzaitza-unitate gisa.

Mondragon Team Academy (MTA) nazioarteko komunitate bat da, non 2500 pertsonak eta gaztek baino gehiagok taldean ekiten duten eta berrikuntza sozialeko ekosistemen laborategien sare global bat sortzen laguntzen duten.

Sortu zenetik, enpresa-hezkuntzan eta ekintzaitzaren garapenean izan duen ikuspegi berritzaileagatik nabarmendu da, eta ikaskuntza esperientziala (learning by doing) eta talde-lana (team learning) izan ditu funtsezko zutabeetako bi. Ekintzan eta hausnarketan oinarritutako hezkuntza-programek erronka eta erronka errealei aurre egiteko prestatzen dituzte gazteak, etengabeko aldaketa eta egokitzapena behar duen gizarte batean.

Lankidetzan, erantzukizun soziala eta espiritu ekintzailea bezalako baloreen bitartez, MTAk kontzientzia eta gizarte, ingurumen eta ekonomia mailan eragin positiboa duten proiektuen sorkuntza sustatzen ditu.

**Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan Gradua** (LEINN) izan zen MTAn sortutako lehen programa. 2009ko uztailan onartu zen ofizialki, eta Ekintzaitza eta Berrikuntzako Europako lehen gradu ofiziala bihurtu zen.

LEINN sortu zen lehen unetik, hainbat bazkidek interesa agertu zuten nazioartean LEINN garatzeko eta beren tokiko komunitateetan eta hirietan MTA laborategiak sortzeko. Horri esker, gero eta gazte gehiagok MTAko talde kooperatiboetako ekintzaitza-iraultzaren bidez trebatzeko aukera izan dute, talde-ekintzaile bihurtuz (teampreneurs) eta, hala, beren tokiko errealitatea eraldatuz.

Gaur egun, 10 laborategitan garatzen da LEINN gradua; Oñatin, Irunen, Bilbon, Madrilan, Malagan, Bartzelonan, Valentzian, Pueblan, Seoulen eta Shanghain.

## **2. GRADUAREN AURKEZPENA: LEINN**

Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduaren helburu orokorra, talde-enpresen sorkuntza eraginkortasunez gidatzeko gai izango diren pertsona eta profesionalak prestatzea da. Ikuspegi etiko eta kritiko batetik, berrikuntza sozial korporatiboa gaituko duena. Lan kooperatiborako duen gaitasuna, ikasteko gaitasuna eta aldaketarako eragile izateko ardura bere gain hartzeko gaitasuna nabarmenduz. Mundu global eta digital batean eraldaketa sozial eta ekonomikorako proiektuak garatzeko prest egotera laguntzen zaie pertsoneri, baina tokiko eta komunitateko garapenarekin konektatutako begirada batetik.

LEINNeko hezkuntza-testuinguruak, ekintzailtza eta berrikuntza-ekosistemen ikuspegi lokala eta globala ematen die pertsoneri, graduan zehar irakaskuntza-metodologia berritzaileak erabiliz eskuratzen dituzten ezagutza, trebetasun eta gaitasunen bidez. Haien garapen pertsonal eta profesionalak egungo eta etorkizuneko gizartearen aldaketei arrakastaz aurre egiteko eta egokitzeko aukera ematen die.

Tituluaren gako nagusietako bat ekosistema ekintzaile lokal eta globalarekin mantentzen den harreman pertsonal, zuzen eta etengabea da; horretarako, proiektu ekintzaileak taldean egingo dira graduaren hasieratik, prestakuntza-ziklo osoan ikasteko tresna gisa.

Apustu estrategikiko honek, LEINNen (Mondragon Team Academy) taldeko ekintzaileen komunitatea osatzen duten eta konektatuta dauden Estatuko eta munduko beste leku batzuetako ekintzailtza-laborategiekin, aukera ematen du enpresetan eta erakundeetan aldaketa bultzatzeko eta lideratzeko gai diren profesionalak izateko, printzipio etikoetan eta planetarekiko eta gizartearekiko erantzukizunean oinarritutako eraldaketa sozial eta ekonomikoaren bilaketan.

### **2.1. TALDEAN SORTZEA: Lankidetzak lehiakorrako egiten gaitu**

Gure ikasteko tresna nagusia taldea da: zuen taldea. Ekintzaile bakoitzak hainbat taldetan lan eginez parte hartzen eta ikasten du: bere enpresa edo Team company, proiektu partekatuak, ikaskuntza-unitateak, kudeaketa-taldeak edo foroak. Beste modu batetan esanda: “beste pertsona batzuekin elkarreragiten eta lan egiten ikasten dugu”. Taldeetan lan egitean, ekintzailtza-gaitasunak praktikan jartzen ikasten dugu, hala nola negoziazioa, lidergoa, denboraren kudeaketa, konpromisoak hartzea eta komunikazioa. Talde guztiek dute bidelagun edo team coach bat. Bidelagunak taldean gertatzen denaren ikuspegi orokorra mantentzen du, eta badaki nola sustatu eta lagundu taldearen ikaskuntza kasu bakoitzean.

## **2.2. BENETAKO ENPRESAK: Zure enpresa sortuko duzu zure taldearekin**

Garapen pertsonalaren eta ikaskuntzaren gakoa, mundu errealarekin etengabeko elkarrekintzan dago: enpresa erreal bat sortzea, bezero errealentzat eta proiektu errealetan lan egitea. Talde ekintzaileak dira protagonistak, eta, taldean, beren enpresak sortzen dituzte, benetako bezeroekin harremanetan jartzen dira, eskaintzak egiten dituzte eta zerbitzuak ematen dituzte. Zeregin horietan laguntzen duten bidelagunak eta aholkulariak prozesu hori babesteaz eta sustatzeaz arduratzen dira, ez zuzentzeaz, eta ikaskuntzarako ingurune seguru eta ezin hobea eskaintzen dute, enpresa-ingurunearekiko harremanari esker.

## **2.3. GOGO ETA GRIÑEZ ikasi nahi duzun horretan**

Zer egin nahi duzue benetan zure bizitzan? Zer behar duzu zure amets pertsonala gauzatzeko? Gure abiapuntua taldean ekiteko grina eta gogo da beti. Horretaz gain, LEINNen, enpresen arrakastan ez ezik, gizarte eta ingurumen inpaktuan ere jartzen dugu arreta, eragin hirukoitzeko ekonomiaren kontzeptua (people, profit, planet) gure proiektuen garapenean zein ikasketa bidaietan txertatuz.

## **2.4. HEZKUNTZA EREDU disruptibo eta erradikala**

Gure ikaskuntza-metodoak Team academy ekintzailtza-unitatean du jatorria, Zientzia Aplikatuaren Jyväskyläko Unibertsitatean (Finlandia) diharduen talde-ekintzailtza irakasteko komunitatean. Metodo hori 20 urtez baino gehiagoz erabili da Finlandian, eta 2006an aitortpen berezia lortu du Finlandiako Hezkuntza Ministerioak.

Finlandiako hezkuntza eredua gure programaren hainbat kontzeptu eta tresnatan antzeman daiteke, hala nola: autogestioa eta sormena, elkarriketa guneak, ekiten ikasten duten taldeak, komunitate zentzua, erantzukizun partekatua edo lanerako espazio fisikoetan. Eredu hori, batetik, askatasunean oinarritzen da, eta, bestetik, erantzukizuna hartzean.

## **2.5. NAZIOARTEKO ESPERIENTZIA munduan sortzen, gizateriari irekiak**

Learning Journeys-ak esperientzia eraldatzaileak dira, non LEINN-ek herrialde eta kultura ezberdinak esploratzen dituzten inpaktu positiboko proiektuak garatzen dituzten bitartean. Bidaia horietan, ezagutza praktikoak lortzeaz gain, tokiko komunitateen eguneroko bizitzan murgiltzeko aukera sortzen da, haien erronkak eta aukerak ulertuz.

Gure ikaskuntza-bidaiek hainbat herrialde eta kontinentetara eramaten gaituzte, eta tokiko bazkideen sare batekin lankidetzan aritzen gara, toki bakoitzeko kulturaren eta enpresa-errealitatean murgiltzeko. Berlinetik Koreara, Indiatik, New Yorketik eta gehiagotik igarota, helmuga bakoitzak ikuspegi paregabea eskaintzen digu ekintzailtzari, berrikuntzari eta iraunkortasunari buruz.

### 3. IKASKETA PLANA

Gure graduko ikasketa-plana lau ikasturtez osatutako ziklo bakar batean egituratzen da, 240 ECTS guztira.

Titulazio honetako graduatuek eskuratutako gaitasunak honako hauek dira:

#### **KO/ Konpetentzia orokorrak (pertsonalak)**

KO1: Sortzaileak

KO2: Irekiak eta inizatibarekin

KO3: Ausartak eta saiatuak

KO4: Kontzienteak eta etorkizunera bideratuak

KO5: Taldeko jokalaria

KO6: Zintzoak eta gardenak

KO7: Sutsuak

#### **KE/ Konpetentzia espezifikoak (profesionalak)**

KE1 :Pentsamolde globala

KE2: Berritzaileak

KE3: Lider ekintzaileak

KE4: Digitalak

KE5: Multikomunikatzaileak

KE6: Bisionarioak

KE7: Emaitzetara bideratuak

KE8: Konektatuak

Ikasketa plana modulu hauetan egituratu da. Modulu horiek unitate akademikoak dira, eta hainbat ikasgai dituzte:

1. Enpresak sortu eta kudeatzeko oinarriak.
2. Ekintzailtza eta bezeroei zuzendutako ikuspegia.
3. Lidergoa, ikaskuntza autokudeatua eta garapen pertsonala.
4. Talde eta komunitateren sormena eta garapena
5. Pertsona globalak.
6. Diseinu pentsamendua, berrikuntza irekia eta negozio ereduen sormena
7. Startups-en inkubazioa eta barne ekintzailtza: inbertsioa eta finantzaketa
8. Espezializazioa eta gradu amaierako lana

## IKASKETA PLANA

### LIDERGO EKINTZAILE ETA BERRIKUNTZAKO GRADU Plana

1. IKASTURTEA	ECTS	MOTA
1.1 materia: Enpresaren sormena eta antolaketa I	6	OP
1.3 materia: Ekintzaileentzako finantzak I	6	OP
1.5 materia: Suspertzen ari diren teknologiak I	6	OP
2.1 materia: Enpresaren sormena eta garapena: finantza, lege eta digital kudeaketarako tresnak I	12	OP
3.1 materia: Lidergoa, ikasketa auto kudeatua eta garapen pertsonala I	10	D
2.3 materia: Bezeroen kudeaketa, marketina eta salmentak I	5	D
4.1 materia: Lantaldeak eta komunitateak sortzea eta garatzea I	10	D
5.1 materia: Nazioarteko egonaldiak (Learning Journeys) eta Berrikuntzako eta Ekintzaileentzako Ekosistemak I	5	D
2. IKASTURTEA	ECTS	MOTA
1.2 materia: Enpresaren sormena eta antolaketa II	6	OP
1.4 materia: Ekintzaileentzako finantzak II	6	OP
1.6 materia: Suspertzen ari diren teknologiak II	6	OP
2.2 materia: Enpresaren sormena eta garapena: finantza, lege eta digital kudeaketarako tresnak II	12	OP
2.4 materia: Bezeroen kudeaketa, marketina eta salmentak II	5	D
3.2 materia: Lidergoa, ikasketa auto kudeatua eta garapen pertsonala II	5	D
4.2 materia: Lantaldeak eta komunitateak sortzea eta garatzea II	5	D
5.2 materia: Nazioarteko egonaldiak (Learning Journeys) eta Berrikuntzako eta Ekintzaileentzako Ekosistemak II	5	D
6.1 materia: Diseinu pentsamenduak eta negozio ereduen sormena I	5	D
6.3 materia: Estrategia eta berrikuntza irekia I	5	D

<b>3. IKASTURTEA</b>	<b>ECTS</b>	<b>MOTA</b>
3.3 materia: Lidergoa, ikasketa auto kudeatua eta garapen pertsonala III	5	D
4.3 materia: Lantaldeak eta komunitateak sortzea eta garatzea III	5	D
5.3 materia: Nazioarteko egonaldiak (Learning Journeys) eta Berrikuntzako eta Ekintzailtzako Ekosistemak III	15	OP
6.2 materia: Diseinu pentsamenduak eta negozio ereduaren sormena II	5	OP
6.4 materia Estrategia eta berrikuntza irekia II	5	D
8.1 materia: Teknologia esponenzialak eta hauen aplikazioak negozio eta industrietan: Adimen artifiziala, BlockChain eta Fabrikazio digitala I	15	D
Hautazkoa: 7.1.1 materia Inpaktuzko startup programa	5	D
Hautazkoa: 5.4.1 materia Ingelesa	5	H
Hautazkoa: 5.4.2 materia Txinera	5	H
Hautazkoa: 5.4.3 materia Hirugarren hitzkuntza	5	H
<b>4. IKASTURTEA</b>	<b>ECTS</b>	<b>MOTA</b>
1.1 materia: Inkubazioa eta barne ekintzailtza: inbertsiorako eta finantzaketarako sarbidea	20	D
1.1 materia: Gradu bukaerako lana	30	GBL
1.1 materia: Teknologia esponenzialak eta hauen aplikazioak negozio eta industrietan: Adimen artifiziala, BlockChain eta Fabrikazio digitala II	10	D



## 4. ARAUTEGI AKADEMIKOA

### 4.1. IKASKETA PLAN BERRIAK

***Kredituak transferitzeko sistema europearra*** (*European Credit Transfer & Accumulation System*; hemendik aurrera, ECTS)

Ikasketen erreformak, "ECTS kreditua" terminoa, balio unitate berri gisa sartzen du, eta horren inguruan egituratzen da ikasketa plana. Irakasgai bakoitzak, balorazio bat dauka kredituetan. Kreditu bat, 25 eskola-orduren baliokidea da (presentzialak eta ez-presentzialak). Unibertsitateak ezartzen dituen ezagutzak eta kompetentziak baloratzeko eta ebaluatzeko sistemen arabera lortuko ditu ikasleak kredituak.

#### ➤ ***Moduluak, materiak eta irakasgaiak***

Ikasketa plan berriak, moduluak, materiak eta irakasgaiak bereizten ditu. Moduluak titulazioaren profilean definitutako kompetentziei erantzuten dieten ikasgaimultzoak dira, eta jakintza arlo berari dagozkion ikasgaiak eta unitate tematikoak dira. Era berean, materiak, irakasgaiekin osatzen dira. Azken hauen programak, irakas gida honetan zehaztuko dira.

Ikasketa-planetan jasotako irakasgaiak honela sailkatzen dira:

- **Oinarrizko prestakuntza:** Titulua atxikita dagoen jakintza adarrari dagozkion ezagutzen sarrerako irakasgaiak dira.
- **Derrigorrezko eta Hautazko materiak:** Unibertsitateak ikasketa plan bakoitzean askatasunez ezartzen dituenak dira. Lehenengoak, ikasleak, nahitaez egin behar ditu, eta bigarrenak, unibertsitateek ikasturte bakoitzean eskaintzen dituztenak dira, ikasleak aukera ditzan, bere lehentasunen eta/edo interesen arabera.

## 4.2. KREDITUAK ONARTZEKO ETA TRANSFERITZEKO SISTEMAREN ARAU ESPARRUA

### ➤ *Kredituen onarpena*

- a) Kredituen aintzatespena da, bai Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean, ikasleak, **ikasketa ofizialetan** lortutako kredituen onarpena. Hauek, Ekintzailatza eta Berrikuntzako Lidergoaren graduak irakaskuntzetan konputatuko dira, titulu ofizial bat lortu ahal izateko efektuetara.
- b) LEINNeke titulazio bikoitza garatzeko erakundeen arteko hitzarmenen arabera, Mondragon Unibertsitateak, Pueblako Unibertsitate Ibero-amerikarrak (Mexiko), eta Xing Wei Collegek (Txina) sinatu egin dituzte akordio hau. Hitzarmen horien helburua da, eskubide eta betebeharrak espezifikoen esparrua ezartzea, aipatutako erakundeen artean, Ekintzailatza eta Berrikuntzako Lidergoaren lizentziatura titularen diseinu, erregistro, eta ezarpenerako, bai, IBERO Pueblan (Mexiko), bai, Txinako XingWei College-ko International Business Degree-n. Ezarri nahi da ere, Mondragon Unibertsitatearen titulu bien aintzatespena, Ekintzailatza eta Berrikuntzako Lidergoaren Graduan, dagozkion efektuak izan ditzan.

Hitzarmen honetan babestutako ikasleei kredituak aitortzeari buruzko arau hauek aplikatuko zaizkie:

- Titulazioa burutzeko onartuak izan ahalko dira, Unibertsitatean sartzeko behar diren baldintza akademikoak betetzen dituzten pertsonak.
  - Akordio horretan oinarrituta, IBERO Puebla eta XingWei College titulazioetako 240 ECTS onartu ahal izango dira, Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan. Horretarako, erakundeen programen arteko baliokidetasunak garatu dira eta aintzatespen-taulak ezarri dira.
- d) Halaber, unibertsitateaz kanpoko goi-mailako beste irakaskuntza ofizial batzuetan egindako kredituak onartu ahal izango dira, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan aipatutakoaren arabera.

### 1. taula: kredituen aintzatespena, beste irakaskuntza batzuk.

ONARTUTAKO GUTXIENEN ECTS KOPURUA	ONARTUTAKO GEHIENEN ECTS KOPURUA
6	36

Nolanahi ere, onartutako gutxienerako unitatea materia izango da.

Onartutako kredituak, 1 eta 2 ataletan jasotakoa jarraituz, zenbakizko kalifikazioekin kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

- e) Enpresagintza Fakultate honek, Unibertsitatean bertan, beste unibertsitate batzuetan edo Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan aipatzen diren beste titulu batzuetan egindako irakaskuntzengatik kredituak aitortu ahal izango ditu, ikasleak egindako ikasgaiei lotutako eskumen eta ezagutzen eta ikasketa-planearan aurreikusitakoaren arteko egokitzapenaren arabera, edo, bestela, zeharkakoak badira, ECTS kredituetan irakaste-karga antzekoa bada.
- f) Enpresagintza Fakultate honek, kredituak aitortu ahal izango dizkie beren lanbide-jardunean tituluaren kompetentzia lortu dutela egiaztatzen duten profesionali. Inola ere ez dira aintzatesiko master amaierako lanei dagozkien kredituak.

Lanbide-esperientziagatiko kredituak aitortzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

**1. Lanbide-esperientzia agiri bidez egiaztatzea, honako hauek aurkeztuta:**

✓ Lan-bizitzaren laburpen eguneratua.

✓ Zuzendariaren edo goi-mailako arduradunaren ziurtagiria, eskatzailearen lanbide- eta/edo lan-esperientziaren fede ematen duena. Ziurtagiri horretan, honako hauek adierazi beharko dira, gutxienez: lanbide-esperientziaren iraupena, eskatzailea zer lan-eremutan aplikatu den eta lan-jardunaren ezaugarriak.

✓ Eskatzaileak berak egindako adierazpena, honako hauek azalduz: garatutako lanbide-jarduera, jarduera horren bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak, eskuratutako ezagutzak eta aintzatespena eskatzen duen ikasgaia (k).

**2. Aitorpenaren gutxienerako unitatea materia, eta honi lotutako gaitasunak izango dira, eta ezin izango da ikasgai bat ez den ECTS unitaterik aintzatesi. Eta gradu-amaierako lanari dagozkion kredituak ezin izango dira aintzatesi.**

- g) a)atalean jasotakoaren arabera, aitortutako kredituak zenbakizko kalifikazioekin kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera. b) eta d) ataletan aitortutako kredituen kasuan, kreditu horiek ez dute zenbakizko kalifikaziorik, eta, beraz, ez dira zenbatuko espedientea barematzeko; era berean, kreditu guztiak ezin izango dira 36 ECTS baino gehiago izan

- h) Lanbide-esperientziatik edo lan-esperientziatik eta unibertsitate-ikasketa ez-ofizialetatik abiatuta, aitortu ahal izango diren kredituen kopurua, oro har, ez da ikasketa-plana osatzen duten kreditu guztien % 15 baino handiagoa izango.
- i) Ikasketa Planeko 6 ECTS aintzatetsi ahal izango dira, gehienez ere, unibertsitateko kultura-,kirol-, ikasle-ordezkaritza-, elkartasun- eta lankidetzajardueretan parte hartzeagatik. Aurrekoaren ondorioetarako, Enpresa Zientzien Fakultateak, urtero argitaratuko ditu aintzatespen horretarako aukera ematen duten jarduerak. Azalduko du ere, jarduera horietako bakoitzaren bidez, zenbat kreditu lor daitezkeen, eta jarduera horietan parte hartu izana egiaztatzeko mekanismoak.

➤ ***Kredituen transferentzia***

Kredituen transferentziatzat ulertzen da, ikasle bakoitzak jarraitutako irakaskuntzak, agiri akademiko egiaztatzaile ofizialetan sartzea, titulu ofizial bat lortzera eraman ez arren. Kredituak, aurretik Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean egindako irakaskuntza ofizialetan lortutakoak izan daitezke.

➤ ***Espediente akademikoa***

Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak ikasketa ofizialetan, Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean titulua eskuratzeko lortu dituen kreditu guztiak jasoko dira; hau da, transferituak, onartuak edo gaindituak; eta kasu bakoitzean dagokiona adieraziko da. Onartutako kredituak direnean, honako informazio hau jasoko da jatorrizko irakaskuntzei buruz: Unibertsitatea(k), irakaskuntza ofizialak eta irakaskuntza horiek zein adarretakoak diren; lortutako materiak edota irakasgaiak; kreditu kopurua, eta ateratako kalifikazioa.

➤ ***Tituluaren Gehigarri Europarra***

Ikasleei emandako Tituluaren Gehigarri Europarrean, ikasleak, ikasketa ofizialetan, Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean, dagokion titulua eskuratzeko lortu dituen kreditu guztiak agertuko dira, (transferituak, onartuak edo gaindituak), ikasketa espedienterako zehaztutako espezifikazio berberekin.

### 4.3. IRAKASKUNTZA JARDUERA ETA IKASLEEN EBALUAZIOA

#### ➤ *Irakaskuntza Plangintza*

Fakultateko Zuzendaritzak, baldintza berdintasuna zainduko du, titulu ezberdinak lortzera bideratuta dauden irakaskuntzan eta irakaskuntzen kudeaketan, eta Zentroan ematen diren espezialitateetan.

Fakultateko Zuzendaritzak behar besteko aurrerapenarekin onartu eta argitaratuko du urte akademiko bakoitzerako eskola-egutegia.

Ikasturte bakoitzeko matrikula-epea ireki aurretik, Fakultateak ikasleen eskura jarriko du ematen den irakasgai bakoitzari buruzko oinarrizko informazioa:

- Helburuak, programak eta oinarrizko bibliografia
- Ebaluazio-sistema
- Metodologia
- Oporraldia
- Beste irakaskuntza-jarduera batzuk

Gainera, interesgarritzat jotzen diren datu guztiak erantsiko zaizkie hauei.

Eskola teoriko eta praktikoen ordutegietan, iraksgaiak ematen dituzten irakasleen izenak agertuko dira.

#### ➤ *Gorabeherak ebaluazio probetan eta lanak egitean*

Ikasleak, azterketa bat edo beste edozein ebaluazio proba egiten duen bitartean, ezingo du irakasleak/ek baimendu gabeko materiala erabili. Bestalde, gailu elektronikoak erabiltzen baditu, edo informazioa lortzeko edo trukatzeko, beste pertsona batzuekin edozein ekintza egiten badu, baimenik gabe, honek, ondorioak ekarriko dizkio, eta modulu, materia eta irakasgaia “suspendituta” gera daitezke. Honetaz gain, ikasleari, diziplina erantzukizuna eska dakiok.

Lanak egitean, plagioa edo autoplagioa egitea eta originala ez den materia erabiltzea, Internetekoa barne, egilea aipatu gabe, edo kasua bada, egilearen baimenik gabe, ondorioak izango ditu, eta modulu, materia zein irakasgaia “suspendituta” gera daitezke. Honetaz gain, diziplina erantzukizuna eska daiteke.

Aurreko ataletan araututako egoeraren bat gertatuz gero, dagokion programaren batzorde akademikoak, horren berri emango dio graduondoko irakaskuntzen ardura duen errektoreordetzari.

➤ **Asistentzia falta azterketan, ebaluazio probetan eta ebaluaketan**

Arau orokor gisa, ikasle batek azken ebaluazioan edota ebaluatu behar diren jardueren %100ean parte hartzen ez badu, bere kalifikazioa “ez gainditua” izango da.

Unibertsitatean azterketa edo ebaluazio proba bat ez egitea, eta deialdiaren egun aldaketa lortzea, oso salbuespenezkoa da, eta egoera berezietan bakarrik gertatzen da.

- a) Ospitaleratzea eskatzen duen gaixotasuna, eta, beraz, fisikoki bertaratzea edo proba egitea eragozten duena.
- b) Proba egin aurreko 48 orduetan lehen eta bigarren mailako harremana duen senide bat hiltzea edo oso larri egotea.
- c) Frogara joatea eragozten duten zitazio judizial atzerazina.

Beste edozein arrazoi baztertuta dago. Data aldatzeko eskaerak laborategiko arduradunaren bidez egingo dira, eta graduko koordinaziora bidaliko dira. Koordinazio horrek ahalik eta epe laburrenean erantzungo du.

➤ **Lehenengo ikasturtea. Matrikula lehen aldiz.**

Ikasle sartu berriek lehenengo urteari dagozkion kreditu guztietan matrikulatu beharko dute nahitaez.

➤ **Ondorengo matrikulak**

Ikasturte bakoitza gainditzeko urtero ezarritako iraupen-baldintzak gainditu ondoren, ikaslea Campus/Laborategi/Kurtso berdinean eta maila bakoitzari dagozkion kreditu guztietan matrikulatu beharko da, salbu eta titulazioa amaitzeko geratzen zaion kreditu kopurua ezarritako gutxienekoa baino txikiagoa bada; kasu horretan, kreditu guztietan matrikulatu beharko da.

➤ **Iraunkortasuna**

Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduan matrikulatutako ikasleek hainbat helburu bete beharko dituzte urtero, banaka zein taldeka, zentroan jarraitu edota ikasturtez igaro ahal izateko.

### **Lehenengo maila gainditzeko, gutxieneko baldintza akademikoak**

- 1) 5.1 ikasgaia Nazioarteko egonaldiak (learning journeys), Berrikuntzako eta Ekintzailetzako Ekosistemak I, eta 3.1 ikasgaia, Lidergoa, ikaskuntza auto-kudeatua eta garapen pertsonala I, gainditu izana.

Gutxieneko baldintza horiek betetzen ez dituzten ikasleek, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua utzi beharko dute.

### **Bigarren maila gainditzeko, gutxieneko baldintza akademikoak**

- 1) Ikasle guztiek gainditu beharko dituzte lehen urteko irakasgaiak.
- 2) 5.2 ikasgaia Nazioarteko egonaldiak (learning journeys), Berrikuntzako eta Ekintzailetzako Ekosistemak II, eta 3.2 ikasgaia, Lidergoa, ikaskuntza auto-kudeatua eta garapen pertsonala II, gainditu izana

Gutxieneko baldintza horiek betetzen ez dituzten ikasleek unibertsitate-ikasketak utzi beharko dituzte.

Ekainean, taldeak, gutxieneko baldintza akademikoak betetzen dituela bermatzeko, urtarrileko ebaluazioan, une horretara arte lortutako banakako eta taldeko emaitzen jarraipen zehatza egingo da.

### **Hirugarren maila gainditzeko, gutxieneko baldintza akademikoak**

- 1) Ikasle guztiek gainditu beharko dituzte bigarren urteko irakasgaiak.
- 2) 5.3 ikasgaia Nazioarteko egonaldiak (learning journeys), Berrikuntzako eta Ekintzailetzako Ekosistemak III.

Gutxieneko baldintza horiek betetzen ez dituzten ikasleek unibertsitate-ikasketak utzi beharko dituzte.

Ekainean, taldeak, gutxieneko baldintza akademikoak betetzen dituela bermatzeko, urtarrileko ebaluazioan, une horretara arte lortutako banakako eta taldeko emaitzen jarraipen zehatza egingo da.

### **Gradu Amaierako Lana hasi al izateko gutxienezko baldintza akademikoak**

- 1) 2. eta 3. mailako irakasgai guztiak gaindituak izatea.
- 2) 4. mailako abenduko auditoretza legala, finantzarioa eta teknologikoa gainditu izana eta elkarteren likidazio plana aurkeztu izana.
- 3) “Teknologia esponentzialak eta haien aplikazioak negozio eta industrietan: Adimen artifiziala, Blockchain eta Fabrikazio Digitala II” irakasgaia behar bezala gaindituta izatea. Irakasgai hori team companyri dagozkion lehen seihilekoko ebaluazioetan eta epaimahai baten aurrean egiten den DEMO DAY ebaluazioan balioztatuko da.

### **Gradu Amaierako Lana defendatu al izateko gutxienezko baldintza akademikoak**

- 1) Defentsa burutu baino lehen, ikasleak justifikatu beharko du kide den elkarte likidatu egin dela edo likidazio-fasean dagoela (jarduera uztea aurkeztu duela Ogasunean, eta idazpenak ezerezteko eskatu duela, dagozkion Elkartearen Erregistroan). Batzorde akademikoan aztertuko diren salbuespenetan izan ezik.

Aipatutako baldintza betetzen ez duten ikasleek GBL-a hurrengo deialdian edo ikastaroan defendatu beharko dute, kasuaren arabera.

GBL-a (Gradu Bukaerako Lana) ikaslea matrikulatuta dagoen urteko deialdi arruntetan (otsaila, uztaila, iraila) edo ezohikoetan (azaroa) aurkeztu beharko da.

Adierazitako deialdietan aurkezten ez badu, luzapen bat eskatu beharko du idatziz, eta luzapen hori titulazioaren Batzorde Akademikoak onartu beharko du.

Luzapen hori lortzeak, aukera ematen dio ikasleari, aurkezteko epea hurrengo deialdira arte luzatzeko (arrunta edo ohiz kanpoko). Ikaslea, dokumentazioa aurkezteko eta GBLaren defentsarako ezartzen diren datetara egokitu beharko da, eta berriz matrikulatu beharko da GBLean.

Hurrengo matrikulek ez dute berekin ekarriko dagozkien tasak ordaintzea, lehenengo matrikulaziotik bi urte igaro direnean izan ezik; kasu horretan, ikasleak, matrikularen sostengu kuota ordaindu beharko du. Salbuespenak Batzorde Akademikoan landuko direlarik.



## **Maila guztietan aplikatu beharreko baldintza akademikoak**

Ikasle guztiek parte hartu beharko dute, talde barruko ohiko ikaskuntza eta garapen dinamiketan. Dinamika horiek graduan zehar ebaluatzen dira, eta ikasle guztiek parte hartu beharko dute. Taldeen dinamika eta ebaluazioetan parte hartzen ez duten ikasleek balorazio negatiboa jasoko dute.

Gainera, aparteko ebaluazio proba bat ezarri ahal izango da ikasgai bakoitzerako hasieran ezarritako gutxienekoa lortu ez duten pertsonentzat. Ezohiko proba hori egiteko aldia, egutegi akademikoan zehaztuko da. Ezohiko probaren eskaera, idatziz egin beharko dio interesdunak koordinazio akademikoari, eta honek erabakiko du honen gainean, (onartu edo ez onartu), arduradun akademikoak eskaeraren oinarri diren dagozkion txostenak bidali ondoren.

Irakasgai guztiak etengabeko ebaluazio sistema baten bidez kontrolatzen dira, zeinaren bidez ikasleei etengabeko informazioa ematen zaie ikaskuntza prozesuari buruz. Ebaluazio-prozesua urtean bitan egiten da eta behin ebaluatuta, ez dago ikasturte berean berreskuratzeko aukerarik.

Behin ebaluazio-proben kalifikazioak jakinerazi ondoren, ikasleek ariketak berrikusteko eskubidea izango dute, gehienez ere astebeteko epean, taldeko irakasle arduradunaren aurrean. Arrazoi akademikoengatik edo behar bezala justifikatutako arrazoi pertsonal larriengatik, ikasleak ezin badu berrikuspenera joan zehaztutako epean, irakaslearekin beste egun bat adostu ahal izango du. Azterketa/proba/jardueren berrikuspenera ebaluazioa egin eta bi astera baino ezin da eskatu. Berrikuspenera, nolana ere, aktak argitaratu eta itxi aurretik amaituko da.

Goian adierazitako berrikuspenera egin ondoren, lortutako azken kalifikazioarekin ados ez badago, ikasleak aurkaratu egin dezake dagokion errekurtsioa aurkeztuta. Proben kalifikazioaren aurkako errekurtsioa arau hauei lotuko zaie:

1. Ebaluazio-jarduera bati buruzko kalifikazio bat berrikusi ondoren ikaslea kalifikazio horrekin ados ez badago, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du dagokion laborategiko titulazioaren arduradunaren aurrean. Erreklamazioa arrazoitua eta idatzia izan behar da.
2. Erreklamazioa 3 egun balioduneko epean aurkeztu behar da, proba berrikusten den azken egunetik kontaktzen hasita.
3. Erreklamazioa onartu ondoren, laborategiko titulazioaren arduradunak erreklamazio-epaimahai bat izendatuko du, dagokion arloko bi irakaslek osatua, eta ikaslea ebaluatu zutenak kanpoan utziko ditu.
4. Behin betiko ebazpena eman aurretik (eta beti jardueraren kalifikazioa berrikusi ondoren), epaimahaiak aurkaratzen ari den kalifikazioaren irakasleari entzungo dio. Halaber, ikasleari egoki iritzitako argibideak eskatzeko eskubidea du.
5. Epaimahaiak akta batean jasoko du bere erabakia, eta interesatuei jakinarazi beharko die hamar egun balioduneko epean, erreklamazioa onartzen denetik hasita.

Ikasleek gehienez ere 3 aldiz erabili ahal izango dute baliabide hori gradu osoan. Ikaslea ez bada joan aurka egin zaion probaren azterketara, ez du helegite-eskubiderik izango.

Salbuespenez, ezohiko ebaluazio-proba bat ezarri ahal izango da tituluan jarraitzeko hasieran ezarritako gutxienekorik lortu ez dutenentzat. Ezohiko proba hau egiteko epea egutegi akademikoan zehaztuko da. Ezohiko probaren eskaera interesdunak idatziz egin beharko dio Koordinazio Akademikoari, eta hark erabakiko du bere aukera (onarpena edo ez-onarpena) arduradun akademikoak eskaera onartzen duten txosten egokiak igorri ondoren.

Ezohiko proba hau behin bakarrik eta irakasgai bakarrerako eskatu ahal izango da titulu osoan zehar.

Arau orokor gisa, ikasleek bi deialdi izanen dituzte irakasgai bakoitzerako, bat urteko, kasu hauetan izan ezik:

- “Nazioarteko egonaldiak (Learning Journeys) Berrikuntza eta Ekintzailetzako Ekosistemetara I, II eta III” irakasgaiak, bai eta “Lidergoa ikaskuntza autogestionatua eta garapen pertsonala I eta II” irakasgaiak ere, Graduan ezarritako Iraunkortasun Baldintzen parte direnak; beraz, ezin dira berreskuratu.
- Era berean, “Nazioarteko egonaldiak (Learning Journeys) a Sistemas de Innovación y Iniciativa I, II y III” irakasgaietan ezin da graziatzeko deialdirik eskatu (Aparteko Ebaluazio Proba).
- Gradu Bukaerako Lana bere araudiaren arabera arautzen da (Gradu Bukaerako Lana - Gida Akademikoa).

#### 4.4. BEKAK ETA DIRU LAGUNTZAK IKASTEKO

Informazioa:

<https://www.mondragon.edu/eu/gradua-lidergo-ekintzailea-berrikuntza/prezioak-bekak-diru-laguntzak>

#### **4.5. ESKOLA ASEGURUA ETA ERAKUNDEAREN ERANTZUN ZIBILEKO ASEGURUA**

Asegurua 1953ko uztailaren 17ko Legearen bidez sortu zen (abuztuaren 18ko BOE), ikasleen aldeko gizarte aurreikuspena bermatzeko; bere babes eta laguntzarako; egoera txarrei, ustekabekoei, edo aurreikus daitezkeen zirkunstantzietan, aurre egin ahal izateko.

Eskola Asegurua nahitaez ordaindu behar da, eta matrikula betetzean ordaintzen da.

Aseguru horren muga 28 urteko adina da; beraz, ikastetxeak derrigorrezko aseguru bat egingo die adin horretatik gorako ikasleei, gutxienez, Eskola Aseguruaren estaldura izango duena.

Bestalde, gradua dela-eta sortutako elkarteek, ikaskuntza-prozesuaren parte gisa, eta 4.3 puntuan adierazitakoaren arabera, enprekin proiektuak gauzatzeko, erantzukizun zibileko aseguru bat dute horretarako kontratatuta.

#### **4.6. BEKABIDE**

Unibertsitateak, unibertsitatearen laguntza publikoak eta berezkoak batzen dituen Bekabide izeneko programa berezi bat dauka. Ordainketak ikaslearen familiaren aukera ekonomikoetara egokituko dira.